



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, 2019KO ABUZTUAREN 23KOA

Azken hamabost egunetan, Arabako Errioxako meteorologia egoerak egonkortasunari eutsi dio, muturreko beroaldiak eta uztaileko eta abuztuko zenbait egunetako ekaitzak eten egin baitira. Horri esker, eta mahastiak ziklo guztian osasuntsu egon direnez eta mahasti gehienek zama orekatua daukatenez, oso ongi garatu dira eta prozesu begetatiboa aktibatuta egin da.

Aiaraldean, prezipitazioei esker kanpaina honetako ur eskasia arintzeaz gain, labore normal hazi eta garatu da.

Mahastiek, oro har, pilatutako atzerapena berreskuratu dute hein handi batean, eta orain gehienak kolore aldaketa betean daude (egoera fenologikoa M2) Arabako Errioxan; aldiz, Arabako Txakolinaren eremuan zertxobait atzeratuta daude, eta aldeak daude lurzatitik lurzatira, egoera eta zama zein den. Horiek horrela, Errioxan, lurzatirik garaienetan eta mendebalderen daudenetan mahats mordo askok ez dute erdietsi erdietsi beharreko kolorea, baina eremurik ekialderenean eta Ebrotik hurbilenean (Moreda Araba, Oion, Lapuebla de Labarca eta abar), mahasti gehienak kolorez aldatuta daude eta heltzen hasi dira. Aiaraldean, nola eremua txikiagoa den gorabeherak handiagoak dira, mahastiaren zama eta esposizioagatik, eta berez daukan garaieragatik, ez hainbeste latitudeagatik; hortaz, mahastiaren kolore aldaketa desberdina da mahastitik mahastira. Egoera fenologiko horien ondorioz, zertxobait atzeratuta daude -3-5 egun eskas- azken urteetako ohiko datekin alderatuz.

Osasun egoerari dagokionez, ez da nabaritu ezeren faltan daudenik edo haien kontrolerako kalte nabarmenak sortu dizkieten edo arriskuak edo eragozpenak eragin dizkieten izurrite edo gaixotasunen agerraldirik egon denik. Oidioa eta mildiua ondoek sortutako gaixotasunak dira, bata Arabako Errioxakoa bertakoa eta bigarrena txakolinaren eremukoa, eta behin baia kolorez aldatzen denean ez diete eragiten mahastiei. Hartara, arinaldia iritsi da gaixotasun horiek direla-eta babes fitosanitarioa emateari dagokionez, haiexek baitira lan handiena ematen dutenak eta mahastizainei ekonomikoki ahalegin handiena eskatzen dietenak, nahiz eta, aurten, aldeko egoera baten ondorioz ez duten aparteko arazorik eragin.

Bukatzeko, mahats bilketaren azken txanpan sartu gara Arabako Errioxan. Mahastiak guztiz osasuntsu daude, mahats mordoa ez dago oso trinko eta etekina orekatua da, eta horri esker mahatsa azkarrago helduko da eta kanpainaren azken emaitza hobea izango da.

Arabako Txakolinaren eremuari dagokionez, ia mahasti guztiak kolorez aldatu dira, eta mahastizain eta ardandegidunak oso itxaropentsu daude: tratamenduen gastua jaitsi egin da, mahatsak ere oso osasuntsu daude, eta uzta ugaria da. Salbuespen bakarra da lurzati gutxi batzuk kaltetu egin zirela udaberriko izozteen ondorioz, eta hori dela-eta diru sarrera gutxiago izango dituzte.

Mahats bilketarako gelditzen diren 30-45 egunetako meteorologia egoerak, mahastien kolore aldaketa betetik hasita, 2019ko uzta erabakiko du; oraingoz, kalitatearen aldetik esan dezakegu Arabako azken urteetako onena dela.

Guardia, 2019ko abuztuaren 23a

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua